

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak lortzeko eta kontsumitzaile fidelak direla ziurtatzeko egingo ditugun ekintzen zerrenda da hurrengokoa:

- **SARE SOZIALAK:** Gure bezeroekin harremanetan egon ahal izateko, gure sare sozialetako kontuak izango ditugu (Twitter, Instagram eta Tiktok). Horrela, gertutasun-sentsazioa sortuko dugu bezeroen eta gure artean.  
**Tik tok:** hainbat pertsonari elkarrizketak egingo dizkiegu kalean, bidaiatuz haien esperientziak jakiteko.  
**Instagram:** Gure aplikazioan eskaintzen ditugun establezimenduen argazkiak argitaratzea.  
**Twitter:** Aplikazioan atera diren azken eguneraketen eta akatsen berri ematea.
- **INFLUENCER-AK:** Influencer-ak erabiliko ditugu geure burua ezagutarazteko eta, horrela, bezeroak lortzeko. Influencer-a emakumea, gaztea (40 urtetik berakoa), bidaiari eta turismoari buruzko edukinak egiten dituenak izango da. Izan ere, influencer mota horren jarraitzaile gehienak gure app-aren bezeroen segmentazioagaz bat egiten dau. Adibidez; @claudiamary, @patrigoe, @lamochiladesara eta @el\_viajedetuvida.
- **ERANSKAILUA ESTABLEZIMENDUAN:** App-a duten establezimenduek gure logotipoa duen eranskailu bat erabiliko dute establezimendutik kanpo. Horrela, gure proiektua ezagutzen ez duten establezimendu horietako bezeroek modu bisualean ezagutu ahal izango dute gure app-a. Horretaz gain, gure aplikazioan erabiliko dugun publizitate bakarra establezimenduena izango da eta gure bezeroek gure aplikazioan ikusi nahi dituzten iragarki bakarrak erabiltzaileare interesekoak direla ziurtatuko dugu.
- **GEOLOKALIZADOREA:** Gure app-aren beste funtzio bat geolokalizatzaile bat eskaintzea izango da, erabiltzaileei beren kokapenetik gertu establezimenduak aurkitzeko aukera emango diena.
- **KONTU SEGURUA:** Aplikazio segurua izango gara, kontu batean erregistratzeko beharrezkoa izango baita telefono zenbaki bat eta gmail bat erabiltzea, edozein sar ez dadin.
- **JAKINARAZPENAK:** Kontsumitzaileak gure aplikazioan erregistratzen direnean, gure mailing list-era harpidetzeko aukera izango dute. Horrela, mezu elektronikoa interesgarriak jasoko dituzte, baita gure aplikazioaren berrikuntzei buruzko informazioa ere. Gure app-ak erabiltzaileei informazioa emango die erabiltzaile bakoitzaren gustuekin bateragarriak izan daitezkeen establezimenduak aurkitzen dituztenean, gomendio pertsonalizatuak eskaintzeko.